

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

Izenburua

Programazioa eta robotika, Ikaskuntza-Zerbitzuaren bitartez

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Programazioak eta robotika hezigarriak elkarrekintzaz aberastutako giroak sortzeko aukera ematen dute, baina, sarritan, biztanle-talde jakin batzuek sarbide mugatua dute horrelako esperientzietara.

Horregatik, Gradu Amaierako Lanaren bidez, aukera-berdintasuna bermatu nahi da eta, horretarako, teknologia oinarri duen proposamen didaktikoa diseinatu eta abian jarriko da, Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiaren faseen bidez.

Hau da, labur-labur, asmoa da talde ahulenei ere pentsamendu konputazionala garatzearen abantailak eskuratzeko aukera eskaintzea, programazioan eta robotika hezigarrian oinarritutako esku-hartzeen bitartez eta aldez aurretik agente kolaboratzailearekin adostutako xehetasunak kontuan hartuta.

Haur Hezkuntzako Graduan plaza bat eskainiko da eta Lehen Hezkuntzako Graduan beste bat.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

Gure fakultatearen kasuan, ikaslea da gaia aukeratzeko duena, espedientearen notaren arabera. Hala ere, konpromiso soziala, autonomia eta hausnarketa kritikoa beharrezkoak dira.

Campus

Araba

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Titulazioa

Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Euskara

Irakasle arduraduna

Rakel Gamito Gomez

Posta elektronikoa

rakel.gamito@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, Hezkuntza Gradu Amaierako Lanetako (GrAL) Ikaskuntza-Zerbituaren (I+Z) bitartez humanizatzeko xedearekin lanean.

CBL proiektuaren webgunea

[Errealitateak eraldatuz: Ikaskuntza-Zerbitua GAletan -iraunkortasuna UPV/EHU.](#)